



2023KO AURREKONTU AKORDIOA ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN

- 1. Babes soziala:** *alokairuen eguneraketak %2ra mugatzeko neurriaren indarraldia 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.*

Urtebetez luzatuko dira, 2023ko abenduaren 31ra arte, 11/2022 Errege Dekretuan jasotako neurriak, alokairuen berrikuspenari eta %2ko mugari dagozkionak. Urtea amaitu aurretik Espainiako Gobernuak onartuko duen Errege Dekretuan txertatuko da neurri hori.

- 2. Pentsioak:** *kotizazio gabeko pentsioek %15eko igoera mantenduko dute 2023ko abenduaren 31ra arte.*

Kotizazio gabeko pentsioen %15eko igoera urtebetez luzatuko da, 2023ko abenduaren 31ra arte. Batez besteko 70 euroko igoerak 450.000 pentsioduni egingo die mesede hilerok, batez ere miseriazko pentsioak kobratzen dituzten emakumeei.

Abenduan Espainiako Gobernuak onartuko duen Errege Dekretuan txertatuko da neurri hori, eta 420 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa jasoko du.

- 3. Kalte-ordainak Talidominak jotako pertsonentzat:** *12 milioi euro gehiago jarriko dira talidomida botikak kalte eginikoentzat.*

12 milioi euro gehiago jarriko dira talidomidagatik kaltetutako pertsonak laguntzeko. Hamarkada askotan ahaztuta egon den kolektiboaren beharrezanean erantzutea du xede ekarpen ekonomiko handitzeko erabakiak, aurrekontu proiektuak jasotzen zuen kopurua motz geratzen baitzen. 50 eta 60ko hamarkadetan Grunenthalen botikaren ondorioz malformazio larriekin jaio ziren ehunka pertsona biltzen dituen kolektiboarekin erakundeek zuten zor historikoa kitatzen eta urteetako bidegabekeria arintzen lagunduko du.



4. **Osasuna:** *barruko 200 mediku egoiliar gehiago; guztira, 1.200 plaza gehiago egongo dira 2023an.*

2023rako aurreikusitako Barruko Medikuei Egoiliar (BAME) kopurua handitzeko, bi milioi euro gehiago bideratuko dira aurrekontuetan. Gobernuak iragarritako mila medikuei, 200 mediku egoiliar gehiago gehituko zaizkie akordioari esker, egungo mediku faltaren aurrean osasun sistema publikoa indartzeko eta beharrezko belaunaldi aldaketari bide emateko asmoz. Guztira, Familia eta Komunitateko Medikuntzan espezializatutako 1.200 plaza gehiago eskainiko dira hurrengo urtean.

5. **Memoria:** *Martxoaren 3ko biktimak oroitzeko memoria gunearen sorrera Gasteizen, Irulegiko indusketak lanei bultzada ematea eta Ezkabako Gotorlekua memoria gune bihurtzea.*

- Martxoaren 3ko biktimak oroitzeko memoria gunea sortzeko 600.000 euro bideratuko dira, Gasteizko Zaramaga auzoko San Frantzisko Asiskoaren eliza birmoldatuz. Ekarpen horri esker, 1976an hildako bost grebalariak omentzeko proiektua martxan jartzeko falta zen ekarpen ekonomikoa gehitu du EH Bilduk.
- 300.000 euro bideratuko dira Aranguren ibarreko Irulegi mendian (Nafarroa) Aranzadi elkarteak bultzatutako indusketa lanei jarraipena emateko eta finantzatzeko. Berriki inoiz ez bezalako aurkikuntza egin du han, euskararen aurrekari idatzi zaharrena topatuta. 'Irulegiko eskua' izena eman dioten idazkuna mugarri historikotzat jo dute arkeologo eta hizkuntzalari entzutetsuek, eta ezinbestekoa da babes instituzional areagotzea euskararen jatorriaz ikertzen jarraitzeko.
- Hiru milioi euro jasoko dituzte 2023ko aurrekontuek Ezkabako Gotorlekua (Iruñea, Nafarroa) memoria gune bihurtzeko lehen ekarpen gisa, Memoria Demokratikoaren Legearen esparruan lortutako akordioa jarraipena emanez. Hitzarmen horri esker, egungo azpiegitura militarren erabilera Nafarroako Gobernuaren esku geratuko da, 1938ko ihesaldian fusilatuta hil zituzten presoek omenezko memoria gunea sortzeko.

6. **Autogobernua:** *Trafikoari lotutako eskumena martxoaren 31 baino lehenago eskualdatuko da Nafarroara.*

Nafarroak 2023ko martxoaren 31 baino lehen jasoko du Trafiko eta Bide Segurtasunari dagokion eskumena. Horretarako, abenduaren 31 baino lehen bildu beharko da eskualdatzeaz arduratzen den batzordea, eta egungo arazo teknikoak konpontzeko behar adina bilera egin beharko ditu akordioan jasotakoa betetzeko.



7. Zerga sistema: *banku eta argindar enpresen irabazi ezohikoen gaineko zergak euskal ogasunen esku geratuko dira eta iraunkorrak bihurtzeko aukera aztertuko da.*

- Banku eta argindar enpresen irabazi ezohikoen gaineko zergak euskal ogasunek kudeatuko dituzte, EAEko eta Nafarroako erakundeekin hala adostuta; Kontzertu Ekonomikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren jarraipen batzordeetan, hurrenez hurren. Legea indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean egin beharko dute zerga horiek diru sarrerak foru ogasunen esku uzteko akordioa, beti ere euskal erakundeen eskumen fiskal propioak eta autogobernua errespetatuz.
- Bankuei eta elektrikei ezarritako zergen emaitzen inguruko txosten bat taxutzeko konpromisoa hartu du gobernuak zergen bi urteko indarraldia amaitu aurretik, iraunkorrak bihurtzeko aukera aztertzeko.

8. Trantsizio ekologikoa: *proiektu jasangarriak eta energia komunitateak bultzatzeko neurriak.*

- 1,5 milioi euro bideratuko dira Baliarraingo Ibiurko urtegiaren ingurune naturala berreskuratu eta egokitzeko; Gipuzkoako Tolosaldea eskualdea hornitzen du urtegiak.
- 700.000 euro inbertituko dira Asparrenan (Araba) Biohondakinen Tratamendurako Planta sortzeko. Proiektu horrek Arabako Lautadako zortzi udalerrietan sortutako biohondakinen tratamendua ekarriko du.
- Espainiako Gobernuak autokontsumo energetikoari, soberakinei eta komunitate energetikoei buruzko 2019/944 Europako Zuzentarauaren transposizioa egingo du sei hilabeteko epean gehienez ere, autokontsumo partekatu elektrikoa bultzatzeko helburuarekin.

9. Euskarari bultzada: *milioi bat euro bideratuko dira euskarazko irratien digitalizazio errazteko eta beste 250.000 euro euskarazko zirkuaren sustapenerako.*

- Milioi bat euro bideratuko dira euskarazko irratien digitalizazioa azkartzeko, eta aurrerapen esanguratsuak ekarriko ditu berrikuntza eta garapenaren alorrean. Ekarpene horrek euskarazko irratien hedapen gaitasuna areagotuko du modu nabarmenean, eta bat dator joan den urtean euskarazko ekoiztutako ikus-entzunezko hedabideen hedapenerako lortutako akordioarekin.



- Babes-lerro berri bat irekiko da, erakundeek Euskal Herrian plazaz plaza ari den jarduera bat diruz lagundu dezaten. Euskaraz ekoitzitako zirkuaren sustapenerako 250.000 euro bideratuko dira hurrengo urteko aurrekontuetan. EH Bildurekin lortutako akordioari esker, orain arteko ibilbidea berme gehiagorekin egiteko aukera izango du *Gure Zirkua* ikuskizunak.

10. Unibertsitateak: milioi bat eta erdi EHUrentzat, milioi bat euro NUPentzat eta bi milioi Mondragon Unibertsitatearentzat.

- Milioi bat eta erdi euro bideratuko dira Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, energia berriztagarrien eta itsas jatorriko hidrogenoaren (olatuak, mareak...) garapen teknologikoa ikertuko duen laborategia martxan jartzeko.
- Milioi bat euro Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzat, energiaren biltegitratze eta kudeaketa egokira zuzendutako *Green Smart & Sustainable Campus* proiektua gauzatzeko. Mugikortasun jasangarri eta adimentsuan oinarritutako Iruñeko campusa aitzindaria da Espainiako Estatuan.
- Bi milioi euro Mondragon Unibertsitatearentzat, ikasleei zerbitzua ematen dien plataforma digitalaren garapenera eta hezkuntzaren berrikuntzara bideratzeko.

Euskal Herria Bildu
2022ko azaroaren 22a